



Altzarien Historiari buruzko V. Kongresu Iberoamerikarra



Altzaria kultur kapital gisa

Eka. 11 - Eka. 13 2025

Kod. 009-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Workshop

Data

Eka. 11 - Eka. 13 2025

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Hizkuntzak

Gaztelera Euskara

Balio akademikoa

30 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

[CASTELLANO](#) - [ENGLISH](#) - [PORTUGUÊS](#)

Euskal Herriko Unibertsitateak **Altzariaren Historiari buruzko V. Kongresu Iberoamerikarra** antolatuko du, Bilboko Bizkaia Aretoan, 2025eko ekainaren 11, 12, 13 eta 14an. Oviedon (2016), Porton (2018), Bartzelonan (2020/21) eta Mexiko Hirian (2023) egindako edizioei jarraituz, Iberoamerikako altzarien historiarekin lotutako azterlanei buruzko emaitzak azaltzea eta eztabaidatzea du helburu.

Altzariak aldi desberdinetan gizakiaren jarduera desberdinak garatzea ahalbidetu duten objektu ugari egiten dio erreferentzia. Edizio honetan, kongresuak, Pierre Bourdieuri jarraituz, "**Altzaria kultur kapital gisa**" izango du ardatz, altzaria boterea eta estatus soziala ematen duen elementu bezala, halaber ikuspegi eta garai historiko desberdinetatik egindako irakurketak onartuko dira.

Horregatik, parte hartzera gonbidatzen ditugu artearen historian, kontserbazioan, zaharberritzean, arkitekturan, diseinuan, artisautzan, museoetan, antikuariotzan adituak direnak, eta baita ere altzarien inplikazio kultural, artistiko, historiko, material, sozial, politiko, ekonomiko edo antropologikoen inguruan ikertzen duten pertsonak.

Helburua bizimoduan, errituetan edo gizarte-estatusen aldaketak azaltzen duen ondarea bati buruzko irakurketak ahalbidetzea da. Hurrengo gaien inguruko lanak posibleak dira: materialak eta teknikak, artisautzak eta industriak, tipologiak, eredu eta egiturak, funtzio eta adierazpenak, egoerak eta momentuak, sinesmenak eta identitateak, ingurunearekiko eta beste agertoki batzuekiko harremanak eta loturak, merkatuak, bildumazaletasuna, ondare higigarriaren erakusketak eta kudeaketak.

Ondorioz, beharrezkoa izango dira hurbilketa panoramikoak eta kasu-azterketak egitea, altzarien eta diziplinen arteko erlazioak aztertzea eta hainbat ikerketa-iturri agerian uzten dituzten irakurketa teorikoak, historiografikoak eta metodologikoak.

Kongresuarako honako gai-arlo hauek proposatzen dira:

- Dimentsio kulturalak, praktikoak eta sinbolikoak.
- Teknikak eta materialak, artisautza eta industriak.
- Tipologiak, ereduak eta egiturak.
- Harremanak eta loturak.
- Ekoizpen- eta merkataritza-guneak.
- Merkatua eta bildumazaletasuna.
- Kontserbazioa, katalogazioa, erakustea eta kudeaketa.
- Teoria, metodologia, historiografia eta ikerketa-iturriak.

PROPOSAMENAK BIDALTZEA ETA AURKEZTEKO EPEAK. CALL FOR PAPERS

Laburpenak bidali ahal izango dira **2024ko abenduaren 15era arte**. Zure proposamena bidaltzeko, deskargatu jarraian eskura dagoen txantiloia, eta hau erantsi emandako online formularioan:

Txantiloia: https://docs.google.com/document/d/1_I9b0gQSM88ta3gpoTq0amn3DRYYrnOD/edit?usp=sharing&oid=116184615851150079230&rtpof=true&sd=true

Formularioa:

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdhKvQZHCB1yyxDiEOEjC0RIInx1OjCus-oDJJBf1S0zFR6o8w/viewform>

Batzorde zientifikoak ebaluazioa egin ondoren, urtarrilaren erdialdean jakinaraziko dira onartutako proposamenak, eta hauek apirilaren 15a baino lehen formalizatu beharko dute matrikula, parte hartuko dutela berresteko.

Komunikazioak aurrez aurre egingo dira eta gaztelaniaz, portugesez, ingelesez edo euskaraz egin ahal izango dira, aldi bereko itzulpen-zerbitzurik gabe, eta 15 minutuko iraupena izango dute.

ARGITARATZEA

Kongresura aurkeztutako komunikazioak **Res Mobilis** aldizkariaren ale berezi batera bidali ahal izango

dira, ebaluatu daitezten.

Argitalpen-arauak aldizkariaren orrian adierazitakoetara egokituko dira, baina gehieneko luzera 35.000 karaktere izango da, tartekin, eta gehienez 10 irudi onartuko dira.

Originalak aurkezteko data 2025eko irailaren 30a izango da.

Aldizkariaren esteka: [Res Mobilis] <https://reunido.uniovi.es/index.php/RM>

BATZORDE ZIENTIFIKOA

- Patricia Díaz Cayeros. Instituto de Investigaciones Estéticas. UNAM
- Pedro Feduchi Canosa. Universidad Politécnica de Madrid
- Ana María Fernández García. Universidad de Oviedo
- Mónica Piera Miquel. Associació per l'Estudi del Moble
- Gonçalo de Vasconcelos e Sousa. Univesidade Católica Portuguesa. Porto
- María Villanueva Fernández. Universidad de Navarra

BATZORDE ANTOLATZAILEA

- Fernando R. Bartolomé García. UPV/EHU
- Mikel Bilbao Salsidua. UPV/EHU
- Eva Díez Paton. UPV/EHU
- Francisco Javier Muñoz Fernández. UPV/EHU
- María Jesús Pacho Fernández. UPV/EHU

Helburuak

Perspektiba eta kronologia ezberdinetatik Iberoamerikako altzarien historiarekin lotutako azterlanei buruzko emaitzak azaltzea eta eztabaidatzea.

Antolakuntza



Lankidetzak



Zuzendaritza



Francisco Javier Muñoz Fernández

UPV/EHU

UPV/EHUko Artearen Historia eta Musikaren Saileko irakaslea da, eta bere ikerketa-ildo nagusiak hiri-historia, arkitekturaren historia, barne- diseinua, queer ikasketak eta arte-ondarea aro garaikidean dira.

Kokalekoa

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Abandoibarra etorbidea. 48009- Bilbo

Bizkaia